

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 1184

GAIA: Dirulaguntzak emateko oinarriak onartu eta deialdia egiteko proposamena

ESPEDIENTEA: 2023HDID0002

INTERESDUNA: Eskoriatzako Udala

Udal honetan indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, besteak beste, ondorengo dirulaguntza jasotzen du: Landa-guneetan udalez kanpoko ur hornidura sistemantzako dirulaguntzak ematea.

2023ko udal aurrekontuan 10.000 euroko diru partida bat jasotzen da Plan Estrategikoan aurreikusitako diru laguntza hori emateko.

Aurrez esandako guztiarengatik, Lurraldearen eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren batzorde informatzaileak informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.s artikuluari dagokionez Dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko udal ordenantza orokorraren 15. artikuluan ezarritakoa betez, Alkate naizen honek, honako hau

ERABAKI DUT:

1º.- Landa gunetan udalez kanpoko ur hornidura sistemantzako 2023ko ekitaldiko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta deialdia onartzea. Oinarri horiek erabaki honen eranskin gisa doaz.

2º.- Gastuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko urriaren 19ra arte (biak barne) egindako jarduerengatik izan beharko dira.

3º.- Eskaerak aurkezteko epea (azken eguna): 2023/10/31

4º.- Deialdi horri aurre egiteko 10.000 euroko gastua baimentzea Udala aurrekontuko 0100.481.161.00.01 partidaren kargura

ALKATEA



2023HDID0002

ERANSKINA

Landa gunetan udalez kanpoko ur hornidura sistementzako dirulaguntzak emateko oinarriak

1.- Helburua.

Oinarri hauen helburua da herriko landa gunetan dauden eta udalaren titularitateko ez diren ur hornidura sistemak konpontzeko edo mantentzeko lanak finantzatzeko dirulaguntzak -banakako ebaluazio erregimenean- emateko prozedura erregulatzeko.

Dirulaguntzen helburu diren konpontze edo mantentze lanak hornidura kolektiboko sistemetakoak (sare orokorra) izango dira. Salbuespen gisa, sistema indibidualetan egindako konpontze edo mantentze lanak diruz lagundu ahal izango dira, betiere, udal zerbitzu teknikoek aurrez egindako txostenean egiaztatzen baldin bada sare orokorrerako loturarik ezin izan dela egin arrazoi teknikoengatik edo aurrekontu handia eskatzen zuelako.

Dirulaguntzak emateko ondorengo arauak jarraituko dira:

- Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.
- Ezingo dira aipatu aurrekari bezala.
- Ezingo da eskatu dirulaguntza handitzea edo berraztertzea.

2.- Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorraren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

3.- Araudi aplikagarria.

Dirulaguntza hauek eta pertsona onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztietarako honako hauek aplikatuko dira:

- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra.
- 30/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletín Oficiala: 2003-11-18) eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretuz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Araudi honetan jaso ez diren alderdi guztietan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako legeak aplikatuko dira.



2023HDID0002

4.- Onuradunak.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte elizateetako edota landa auzoetako biztanleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarteek, betiere, egoitza eta jarduera esparrua Eskoriatzako landa gunean baldin badute. Dirulaguntza horiek eskatu ahal izango dituzte ere bi elkarte edo gehiagok osatutako elkarteek, betiere, elkarte horiek Eskoriatzako Udaleko elizateetako edota landa auzoetako biztanleek bakarrik osatutakoak baldin badira.

Norbanakoek, norbanako bezala, ezingo dute dirulaguntzarik eskatu.

Elkarteak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1.- Irabazi asmorik ez izatea eta beraien helburuen artean hobekuntzak sustatzea, elkarbizitza eta elizatearen garapen soziokulturala egotea.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako erroldan legez inskribatuta egotea.
- 3.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

5.- Dirulaguntzak jaso ditzaketen jarduerak.

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzten gastuak landa gunetako udalez kanpoko ur hornidura sare kolektiboetan edo, salbuespen gisa eta 1. artikuluan ezarritako moduan aurrez justifikatuta, sare indibidualetan egin beharreko jarduerak dira, betiere, honako helburuak dituztenak:

- Ur-bilketen, ura eramateko bideen, deposituen, arazketa eta desinfekzio ekipoen edo ur horniduraren kalitatea edo ziurtasuna hobetzeko beste elementu batzuen konponketa edo mantentze-lanak.
- Baserriak, ur hornidurari lotunerik ez duten etxebizitzak eta eraiki berri diren etxebizitzak ur hornidura kolektiboko sareari lotzeko lotune berriak egiteko obrak. Baserrietako abeltzaintza ustiaketa instalazioetarako lotuneen kasuan, lotunea baserriak duenetik ezin dela egin justifikatu beharko da.

Gastuak deialdiaren erabakian ezarritako epean egindako jarduerenak izan beharko dira.

6.- Dirulaguntzarik jaso ezingo duten jarduerak.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso ondorengoei buruzko gastuek:

1. Mantentze-lanetatik edo konponketetatik haratagoko obrak eta inbertsio handiak egitea eskatzen dituztenak. Zalantza egonez gero, Lurralde eta Garapen ekonomiko iraunkorraren batzorde informatzaileak erabakiko du obraren izaera eta neurria, hau da, konponketa edo mantentze-lan soila den, edo, alderantziz, inbertsioa den.
2. Auzotarren baserrietara lotuta ez dauden eta Aldundiko Nekazaritza Departamentuak ustiaketatetarako eskatzen dituen gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten ortu txikietarako, abeltzaintzako txaboletarako eta abarretarako lotuneak.



2023HDID0002

7.- Erregimena.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak banakako ebaluazio erregimenean emango dira, ur hornidura publikoa iristen ez den eta horren kanalizazioa oso garestia izango zen landa gunetan ur hornidura sistemaren kalitatea bermatu gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.

Dirulaguntzetarako deialdia egitea Alkate-Udalburuari dagokio, eta horrek hartutako erabakia Dirulaguntzen Sistema Nazionalean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.- Finantziak.

Aurrekontu-esleipena hamar mila (10.000,00) eurokoa izango da, eta honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0100.481.161.00.01

Eman beharreko laguntzen zenbateko osoa ez da adierazitako kontsignazioa baino handiagoa izango.

9.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntza bakoitzerako kopurua diruz lagundu daitekeen gastuaren % 75a izango da.

10.- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua. Indarraldia.

Eskaerak erakunde eskatzailearen ordezkariak sinatutako eskaera orriaren bidez egin beharko dira, eta udaletxean eta webgunean eskura dauden eskaera ereduari egokitu beharko dira. Ez da onartuko eredu hori jarraitzen ez duen eskaerarik.

Dirulaguntzetarako eskabidea Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztu behar da, www.eskoriatza.eus helbidean, aurrerago esango den dokumentazioarekin batera.

Eskaerak aurkezteko epea dirulaguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da.

Eskaerak dirulaguntza indarrean dagoen edozein momentutan egin ahal izango dira deialdiaren urteko urriaren 31a baino lehen.

Eskaerak aurrekontu kontsignazioa dagoen bitartean erabakiko dira.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdian jasotako baldintzak, horiek zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta horretarako, gehienez ere hamar egun balioduneko epe luzaezina izango du. Era berean, ohartaraziko zaio eskatutakoa beteko ez balu eskaerari uko egintzat joko dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 71. artikuluan aurreikusitako moduan eman beharko den erabakia hartu ondoren.

Eskaera egiteak Eskoriatzako Udalari egoki izan daitezkeen jarduerak egiteko baimena ematea dakar. Jarduera horiek eskatzaileak emandako informazioa, eskatutako baldintzak betetzen diren eta dirulaguntza emanda erakunde onuradunak hartutako betebeharrak betetzen diren egiaztatzeko egingo dira.



2023HDID0002

11.- Agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Eskaera orrian bertan aitortu beharko dira:
 - Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
 - Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu bada, horri buruzko informazio espezifikoak aurkeztu beharko da.
 - Ez duela sexu- diskriminazioagatik administrazio- zigorrik, ez zigor penalik.
 - Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukeraberdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
 - Ez duela 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik.
2. Eskoriatzako Udalak zuzenean eskatuko dizkie beste administrazio batzuei eskatzaileak zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzeko behar diren datuak. Eskatzailea eskaera orrian horren aurka agertzen bada, zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
3. Txosten laburra egindako jarduera azaltzeko.
4. Obraren faktura obra egin dela ziurtatzeko.

12.- Eskaerak tramitatzeko ardura duen administrazio unitatea.

Eskaerak Hirigintza eta Obra eta Zerbitzuetako administrazio unitateak tramitatuko ditu.

13.- Eskaerak ebaluatzeko irizpideak.

Lortu nahi den helburua konponketa edo mantentze lanak finantzatzeko dirulaguntza emateaenez, eta lan horiek ezin aurreikusizkoak izanik, norgehiagoka prozedura batean ez dago aukerarik alderatutako baloraziorik egiteko aurkeztutako eskaeren artean, eta, denborarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri. Hau da, eskaerak aurkeztu ahala erabakitzen joango dira horretarako dagoen aurrekontu kontsignazioa agortu arte.

14.- Prozedura eta erabakia.

Eskaerak sarrera hurrenkeran tramitatu eta erabakiko dira horretarako aurrekontu kreditua dagoen artean.

Eskaera aurkeztuta, Obra eta Zerbitzuetako arloko teknikariak aztertuko du, eta dokumenturen bat falta izanez gero, 10 eguneko epea emango da hori aurkezteko.

Epe hori igarota eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, dirulaguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Azkenik, eta diruz lagungarri den jarduera bati dagokion gastua dela esateko teknikariak egindako txostena jaso ondoren, Lurraldearen eta garapen ekonomiko iraunkorraren batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari dagokion erabakia har dezan.

Erabakia gehienez ere hiru hilabeteko epean hartuko da Udal Erregistroan eskaerari emandako sarrera egunetik kontatzen hasita.



2023HDID0002

Epe hori amaituta, eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabaki proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du Udalak batzorde informatzailearen bidez.

15.- Dirulaguntza ordaintzeko modua.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, hilabeteko epean Alkateak dirulaguntza ematea onartzen duenetik kontatzen hasita.

16.- Dirulaguntzak pilatzea.

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, dirulaguntzaren kopurua ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

17.- Dirulaguntzak argitaratzea.

Dirulaguntza, banaka hartuta, 3.000 eurotik gorakoa baldin bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da onuradunaren izena eta emandako dirulaguntza.

Ez da dirulaguntzen daturik argitaratuko, dirulaguntzaren helburuagatik datuak argitaratzea pertsona fisikoen errespetuaren eta ohorea babestearen, intimitate pertsonalaren eta familiakoaren aurkakoa izan daitekeenean.

18.- Dirulaguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea.

Dirulaguntza berraztertzeke eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da dirulaguntza jaso izana horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

19.- Oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauek interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo horien ondorioetarako zalantzarik izanez gero, Lurraldearen eta Garapen ekonomiko iraunkorraren batzorde informatzaileak erabakiko du.

20.- Garapena eta exekuzioa.

Oinarri hauek exekutatu ahal izateko behar beste erabaki hartzeko Ahalmena ematen zaio Alkate-Udalburuari.